

# GURA IZAN ETA EZIN, EGIN ETA ONDATU

Izana eta izenaren gainetik  
gizona/emakumea... gizakia.  
Eta ez dago amarik,  
eta ez dago abirik.  
Ez dago non negar egiterik  
eta... eta ez dago.. zerik!

Mendeen mendeetan,  
iluntasunaren gauean,  
biotzaren beroetan...  
eta nik... eta nik...  
nik txoria neban maite!

Norberarenak egin dauanean...  
ibarren, latsen bakea, ostea.  
Noraezean zagozanean,  
amak umea ilda izten dauanean...  
Ez dago non negar egiterik  
eta.. eta ez dago.. zerik!

Begiak estu-estu,  
agoa leor, miina astun,  
auzokoaren bakean...  
eta nik... eta nik...  
nik txoria neban maite!

Ametsak ustel, amaestxarrak egi,  
ilun-ilun dager.  
Zulo baltza, txori dardaratia,  
esku zimela.  
Ez dago non negar egiterik  
eta... eta ez dago... zerik!

Ezkortasunak gura gauz beraganatu,  
okerkeriaren indarrez,  
txarkeriaren gozotasunez...  
eta nik... eta nik...  
txoria benetan nebala maite!

Ez neban egin gura, baina...  
Ostera... egin, zertu,  
ustu egin neban,... nik neuk!

Zugatzaren gereizpearen izpilu dirudit.  
Ez egoan beste biderik, ez, ez, ez egoan,...  
nire kolkoan!  
Arnasea estuka, bioatza taupadaka,  
ikusmena lausotua... geroaren galbidea.

Eta nik... eta nik... bai, nik txoria,  
txoria maite egin neban!  
Baina, txoriak ez eustan sinistu...  
Lotu egin neban, neure naikeriaz...  
Loitu, ondatu...  
akitu !

Bizitzaren leiotik  
urtenazo egin neutsan,  
NIK NEUK!

INIAKI MARTIARTU  
Bilbon, 1993.eko Bagilaren 10ean.

## BIOTZA APURTU BEAR ETE DAUSKUEN

Galdakao erri euskalduna izan da eta bada ondino, azkeneko ogeitamar urteotan Espaina aldetiko etorkin asko bertaratu arren.

Galdakaotarrek euren euskal nortasunari eutsi gurean, orain dala ogeitamazazpi urte, ANDRA MARI DANTZARI TALDEA sortu eben. Arako neska-mutil itxaropentsu areek, urte illun areetan, eurek euren zerik onena biotz-biotzez, gurari eta abertzaletasunik orbangeenagaz, emon eben.

Urteak etorri urteak joan, taldea aurrera joian. Lagun barriak etorri eta zaarrek gazteagoei lekua eginez, ANDRA MARI biotzean beti eroiela. Zenbat izerdi, zenbat ordu, zenbat lor, atseka-be, samintasun... zigor jasan bear izan dabez, belaunaldi ezbar-dinetako kideek!

Taldeak, baiña, aurrera egin eban. Geroago eta indar aundia-goagaz. Nai ta bidean batzuk geratu; nai ta gorabeera asko izan. Gaur arte. Gaur egun ezagutzen dogun eran eldu arte.

Euskal Kultura munduan bizi izan danak Galdakaoko ANDRA MARI DANTZARI TALDEA zer dan, zer egin dauan ondo baiño obeto daki. Azkeneko urteotan Galdakaon euskal nortasunari gogor, nekaezinik, nongura eutsi dautso. Euskal Erriari zear euskaldun eta abertzale dan talde au geure nortasuna eusten eta zabaltzen makina bat alegin itzelezko egina da. Atzerriari be, geure nortasuna, geure sustraiak, geure askatasunarenganako gogoak eta geure ikurrina argi eta garbi, iñori edo ta ezeren bildurrik izan barik erakutsi dauazana. Erri bat gareala adierazo eta erri onek bizirik diraualaren ambaxadarik onena. Ainbat lagun, erri errialde, naziño euskal nortasunaren ezaugarriak jakinazo eta erakustean ago-zabalik itzi dauazana. Euskaldunak, euskaldun!

Euskerearen, Galdakaoko eta Bizkaiko euskerearen aldele eta zabaltzaile sutsua. Euskal dantza, jantzi, abesti, doiño, musika tresna eta oituren ikertzaile, birreskuratzaile eta berpiztaile sakona, zeatz eta meatza. Euskal Gogoaren berpizkundearen billa dabillena. Gaur egun, iñoiz baiño indartsuago, gogotsuago diarduana.

Au guzti au, irakurle ori, ziurantzean, zeuretzako ez da gauza barria izango. Batez be, irakurleak euskal munduarenganako ardura apur bat erakutsiez gero.

Au guzti au, irakurle ori, galtzeko zorian dago. Kilin-kolon dago.

Au guzti au, irakurle ori, geure burua euskalduantzat artzen dogunok ezin dogu, ezergaitik be, iltzen itzi. Ezin dogu etsi.

IÑAKI MARTIARTU